Arte eta Kultura-industriei eta Sormen-industriei buruzko estatistikei dagozkien landa-lanak egiteko oinarri teknikoen plegua.

1.- Kontratuaren xedea.

Arte eta Kultura Industriak EAEn 2023 eta Sormen Industriak EAEn 2023 estatistikei dagokien informazioa jasotzeko landa-lanak, datuen kalitatearen kontrola egiteko, data-baseak osatzeko eta informazioa lantzeko egitekoak burutzea.

2.- Egin beharrekoak eta non aurkeztu

Eskaintzetan ahalik eta zehatzen jaso behar da zein lan-egitasmo proposatzen den, bai eta adierazitako epean egitekoak gauzatzeko zein antolakuntza modu planteatzen den ere.

Landa-lana egoki burutzeko eta **bosgarren atalean** eskatzen diren emaitzak eskuratzeko behar diren lanak egingo dira, betiere Kulturaren Euskal Behatokiarekin prestakuntza lantegi baten adostutakoarekin bat. Gutxienez honakoak txertatuko ditu:

a. Egin beharreko lanari dagozkion urratsak planifikatzea.
b. Hasierako erroldak araztu, eguneratu eta sailkatu.
c. Inkestak egiteko eta balioztatzeko protokoloak diseinatu.
d. Gorabeherak kudeatzeko eta sailkatzeko fitxategia diseinatu.
e. Inkestatzaileak trebatzeko prozesuak.
f. Ezartzen diren irizpideen araberako inkestatzailea egokiak hautatu.
g. Egingo diren galdesortak maketatu, eta egingo den galdeketaren ezarpen sistema edo diseinua egin.
h. Ezarritako irizpide eta definizioen araberako galdeketak gauzatu. Lan orduetan galdeketa egiteko zailtasunik handiena duten talde edota profilen kasuan galdeketa burutuko deneko ordu tartea zehaztu beharko da egindako eta baliatutako galdesortentzako ezarritako ehunekoak bete daitezen.
i. Egindako landa-lana ikuskatu, bai enpresa esleipenduneko pertsonalak bai Kulturaren Euskal Behatokikoek egoki deritzoten aurrez aurreko nahiz telefono bidezko jarraipena egiteko beharrezko baliabideekin.
j. Proposatzen den eragiketaren jarraipenerako kalitate sistemak.
k. Galdesortak kodifikatu, balioztatu eta grabatu.

l. Ez datu-basearen bidez, ezta beste informazio-iturri batzuen bidez ere, argitu ezin izan diren ez-erantzunak (ez daki / ez du erantzuten) zenbatestea.
m. Datu basea ustiatu.
n. Oro har, ezarritako epeetan erantzun maila egokia eta jasotako informazioaren fidagarritasuna bermatzeko egin beharrekoak egin, behar den eraginkortasun, kalitate eta eragimenez.

Estatistikaren landa-lana egiteko, enpresa esleipendunak Kulturaren Euskal Behatokiak emandako abiapuntu-direktorioak izango ditu. Horietan establezimenduekin harremanetan jartzeko beharrezkoak diren oinarrizko eremuei lotutako informazioa dago, eta horren bidez, honako informazioa balidatu / eguneratu ahal izateko:

- Sektorea. Zein sektoretakoa den zehaztu.
- Jarduera. Balio-katean jarduera zehaztu.
- IFK edo NAN. Establezimenduaren edo pertsona fisikoaren identifikazio fiskaleko kodea.
- Izena. Establezimenduaren izen zehatza.
- Helbidea. Establezimenduaren helbide fiskala.
- Posta-kodea.
- Udalerria.
- Lurraldea.
- Telefono-zenbakia.
- Helbide elektronikoa.
- Agentearen titulartasuna.

Landa-lana hasi aurretik, enpresa esleipendunak 1. Lotearen kasuan Arteen eta Kultura Industrien alorreko 1.200 inguru agentez osaturiko abiapuntu-direktorioa araztu, baliozkotu eta eguneratu behar izango du eta 2. Lotearen kasuan Sormen Industrietako 500 enpresa eta establezimendu ingurukoena.

Informazioa pdf-formulario baten bidez jasoko da, baita telefono bidez galderak eginez ere, edo enpresa esleipendunak proposa litzakeen beste bide batzuen bitartez. Behar izanez gero, bide horiek aurrez aurreko bisitekin osatuko dira, adibidez pdf-formularioak bete behar dituzten agenteei laguntza teknikoa emateko xedez egindakoak.

Erantzun-bidea aparte utzita, informazioa Kulturaren Euskal Behatokiak agente bakoitzarentzat osatutako galdetegien eskemari jarraituz jaso behar izango da.

Proposamenek informazioa lortzeko, aztertzeko eta baliozkotzeko formulak planteatu beharko dituzte, agente bakoitzaren azterketa bermatzeko, eta horretarako azterketa hori inkesta egin behar zaion agentearen ezaugarri espezifikoetara egokitu behar izango da, Kulturaren Euskal Behatokiak homologatutako eta balioztatutako betetze-protokoloaren arabera.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Kulturaren Euskal Behatokiak berak aldez aurreko komunikazio-prozesu formala egitea aurreikusia du, agenteekin elkarlanean aritzea errazteko. Era berean, enpresek proposatutako metodologiak ahalik eta ikuspen eta gardentasun mailarik gorenena bermatu beharko dio Behatokiari informazioa jasotzeko prozesuan.

Ildo horretatik, landa-lan horrek honako lan osagarri hauek hartu beharko ditu kontuan:

1. Hasiera bateko landa-lana egitea, abiapuntu-direktorioa balioztatzeko, arazteko eta sailkatzeko: lehen harreman bat izatea, identifikatzeko, abiapuntu-informazioa eguneratzeko, eta erroldak sartzeko jarritako definizio eta baldintzak betetzen dituela baieztatu galdetegia bidali aurretik.

2. Pdf-formularioak egitea, 2023ko edizioen identifikazio-datuak txertatuta.

3. Direktorio araztua oinarri hartuta, inkesta-lanak egitea: Agenteek emandako erantzunen jarraipena, galdetegiei buruzko zalantzak argitzea, informazioa jasotzea, baliozkotzea, kodifikatzea, ez-erantzunen tratamendua eta kalitate-kontrola.

Prozesua abian jartzeko Kulturaren Euskal Behatokiko arduradunekin egingo den lan bileran, egin beharreko lanean aplikatu behar diren definizioak eta kontzeptuak azalduko dira, baita galdetegien edukiak ere, eta, hortik aurrera abiatuko da landa-lan prozesua.

Informazio bilketa galdesorta egituratu eta itxiaren bidez egingo da eta ondorengo alderdiei buruzko informazioa jasoko da:

- Kultura eta sormen agenteen/enpresen identifikazio-datuak.
- Azken urtean gauzatutako produkzioaren, programazioaren eta salmentaren laburpena hala dagokion kasuan.
- Giza baliabideak, erakundeak guztira zenbat langile dituen jakiteko aukera emateko moduan aurkeztuta.
- Baliabide ekonomikoak: diru-sarreren eta gastuen aurrekontuari buruzko informazioa jasoko da, kontzeptuen arabera xehakatuta.

Kulturaren Euskal Behatokiak esleipendunari lote bakoitzean egin beharreko galdeketa-ereduak emango dizkio.

Prestatzen diren dokumentu guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu behar dira.

Dokumentu guztiak eta gainerako elementuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eskuetan jarriko dira, helbide honetan:

Kultura Sailburuordetza
Lakua I eraikina, 2. solairua
Donostia-San Sebastian kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz.

3. Ikerketaren irismena

A.- Lote 1.- Arte eta Kultura Industriak:

Aztergai diren eremuak eta sektoreak:

Arte eszenikoak
- · Ekoizleak (antzerkia, dantza, e·a)
- · Programatzaileak (antzerki-aretoak eta jaialdiak)
- · Enpresa banatzaileak

Musika
- . Musika eta txistu bandak
- . Orkestrak
- · Musika-programatzaileak
- · Musika Areto Pribatuak
- · Musika Sustatzaileak

Ikusizko arteak
- · Arte-galeriak, erakusketa-aretoak eta produkzio-zentroak

Ikus-entzunezkoa
- · Ikus-entzunezko produkzio-enpresak
- . Zinema-aretoak
- · Enpresa banatzaileak

Disko-industria
- · Diskoetxeak
- · Disko-dendak

Liburu-industria
- · Argitaletxeak
- · Liburu-dendak
- · Enpresa banatzaileak

Ondarea
- · Liburutegietarako zerbitzu enpresak

· Artxiboetarako zerbitzu enpresak
· Museoetarako zerbitzu enpresak

Arte eta Kultura Industrien estatistika errolda bidezkoa da eta, behin 2023ko errolda araztu eta eguneratu ondoren gehienez ere 1.000 bat eragileri egin behar izango zaiola galdesorta deritzogu.

B.- Lote 2.- Sormen industriak

Aztergai diren eremuak eta sektoreak:
. Arkitektura
. Publizitatea
. Bideojokoak
. Diseinua
. Moda
. Hizkuntzen industria

Sormen Industrien estatistika errolda bidezkoa da eta, behin hasierako erroldak araztu ondoren gehienez ere 500 bat enpresari edo establezimenduri egin behar izango zaiola galdesorta deritzogu.

Informazio bilketa egin beharreko lurralde eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da.

4.- Lan taldea

Inkestak egingo dituen lan-taldeak elkarrizketak bi hizkuntzetan egiteko adinako hizkuntza-gaitasuna izan beharko du. Hizkuntza horiek euskara eta gaztelania izango dira.

Proiektuaren ardura duten enpresa esleipenduneko pertsonek ondorengo betekizuna izango dute :

- Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren euskarako C1 maila izan beharko dute.

Galdeketa lanak bideratuko dituztenek ondorengo betekizuna izango dute:

- Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila edo baliokidea izatea.

Halaber, lan-arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu enpresa esleipendunak.

Gainera, enpresa esleipendunak baldintza hauek bete beharko ditu:

- Produkzio-antolaketa propioa izatea, beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak izatea, eta baliabide horiek erabiltzea kontratatutako jarduera garatzeko.
- Enpresa-jardueraren garapenak dakartzan arriskuak, betebeharrak eta erantzukizunak bere gain hartzea.

5.-Sortu beharreko emaitzak

Emaitzak aurkeztearekin batera, enpresa esleipendunak honako produktu hauek, behintzat, entregatu beharko ditu, arestian aipatutako epea agortu aurretik:

- **Metodologia txostena**: Eragiketa abiatu baino lehen Behatokiak balioztatu beharreko metodologia txostena, landa-lanean erabiliko den metodologia, teknika eta esku-hartzeak, gerta litezkeen gorabeherak eta abar jasoko dituena.

- **Metodologiazko oharrak**: gorabeherei buruzko aldizkako ohar metodologikoak, garatutako eragiketarekin eta lortutako informazioarekin zerikusia dutenak.

- **Landa-lanaren gorabeheren eta jarraipenaren fitxategiak:** fitxategi hauek landa-lanaren gorabehera, ezarritako ehunekoen gauzatze maila e.a. adierazi beharko dute aldian-aldian.

- **Landa-lanaren jarraipenari buruzko txostena eta hobekuntza proposamenak**: dokumentu honek landa-lana egiteko erabilitako metodologia jaso behar du, erabilitako estatistika teknikak, jasotako gorabeherak, hobekuntza proposamenak edota galdesortak aldatzekoak, e.a.

- **Errolden datu-basea**. Bertan, erregistro guztiak egongo dira grabatuta eta baliozkotuta (Excel formatuan).

- **Landa-lanaren emaitzen datu-basea**. Bertan, erregistro guztiak grabatuta eta baliozkotuta izango dira. Datu-basearen formatua Access eta Excel formatuko fitxategi batean entregatu behar izango da. Edonola ere, Kulturaren Euskal Behatokiko hardware eta softwarearen ezaugarrietara egokituta egon beharko da.

- **Estatistika eranskinak**, galdesorta ereduetan ezarritako aldagaiekin loturiko emaitzak zehatz-mehatz azalduko dituena, balio absolutuak, ehuneko bertikalak eta horizontalak. Entregatzeko formatua Excel fitxategia izango da.

- **Estatistikaren emaitza nagusiak** jasoko dituen Word formatudun txostena, datu kuantitatibo nagusiak eta ustiaketa taulak barne (tabulazio planaren araberakoak).

- **Landa-lanaren garapenari buruzko txostena** eta hobekuntza proposamenak: dokumentu honek landa-lana egiteko erabilitako metodologia jaso behar du, erabilitako estatistika teknikak, jasotako gorabeherak, hobekuntza proposamenak edota galdesortak aldatzekoak, e.a.

6.- Lantokia

1. Kontratuaren helbururako egin beharreko lanak enpresa esleipendunak horretarako ezarritako lokaletan egingo dira; lokalak ez dira inolaz ere Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarenak izango.

2.- Aurreko puntuan xedatutakoak ez du kentzen inkestaren helburu diren agente, enpresa edo establezimenduen egoitzetan landa-lana egin ez daitekeenik.

7.- Lanen jarraipena

Kulturaren Euskal Behatokiari eta enpresa esleipendunari dagokie pertsonala izendatzea, lanen jarraipen egokia bideratzeko. Izendapen horiek egiteko prozedura eta egutegia zehaztu behar dira, Kulturaren Euskal Behatokiaren eskakizunen arabera.

Lanerako kronograman zehaztutako zeregin bakoitzaren eraginkortasunaren, efizientziaren eta kalitate-mailaren jarraipena egiteko prozesuaz arduratuko da Kulturaren Euskal Behatokia. Horrenbestez bermatuko da helburuak eta kalitate-irizpideak betetzen direla azterketaren fase bakoitzean.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

AITOR PÉREZ SALTERAIN - 14606808Z

Firmado digitalmente por AITOR PÉREZ SALTERAIN - 14606808Z
Fecha: 2024.06.05 13:50:55 +02'00'

Aitor Perez Salterain
Kulturaren Euskal Behatokiko arduraduna